

Gasa hornitzeko kontratuaren baldintza espezifikak

TARIFA ETA PREZIOA

Tarifa: Precio fijo

BEZEROAK aukeratutako tarifaren arabera, kontzeptu hauek osatuko dute prezioa:

- **TERMINO FINKOA:** Zenbatekoa kalkulatzeko, horniduraren egun-kopurua bider MERKATURATZAILEAK finkatutako prezioa egiten da. Ez dago kontsumoaren mende, eta une bakoitzean indarrean dauden bidesarien eta karguen kostua barnean hartzen du (*).

Uneko balioa hau da:

- Sarbide-tarifa RL01: 5,871248 €/hilabetea (7,104210 €/hilabetea zergak barne).
- Sarbide-tarifa RL02: 10,188311 €/hilabetea (12,327856 €/hilabetea zergak barne).

- **KONTSUMITUTAKO ENERGIAREN TERMINOA (KET):** Zenbatekoa kalkulatzeko, fakturazio-aldian kontsumitutako energia (kWh) BEZEROAREKIN biderkatu behar da une bakoitzean indarrean dauden bidesari eta karguen (*) eta MERKATARITZAILEAK finkatutako energiaren kostuaren baturaren emaitzarekin.

Uneko balioa hau da:

- Sarbide-tarifa RL01: 0,088000 €/kWh (0,106480 €/kWh zergak barne).
- Sarbide-tarifa RL02: 0,084000 €/kWh (0,101640 €/kWh zergak barne).

- (*) **Bidesariak eta karguak** aldizka eguneratzen dituzte Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak (MLBN) —uztailaren 22ko 6/2020 zirkularra oinarri hartuta, zeinak gas naturalaren garraioaren, tokiko sareen eta birgasifikazioaren bidesariak kalkulatzeko metodologia ezartzen baitu— eta Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak— abenduaren 29ko 1184/2020 errege-dekretua oinarri hartuta, gas-sistemaren karguak kalkulatzeko metodologiari buruzkoa—. Horiei sistemaren kudeatzaile teknikoaren ordainsaria finantzatzeko kuota, MLBNren tasa eta aplikatzekoa den beste edozein tasa aplikatuko zaizkie.

- Kontratu honen baldintza orokorren 11. klausulak (Aldaketa) dioena eragotzi gabe, merkaturatzaileak prezioak eguneratu ahal izango ditu hilabete lehenago bezeroari horren berri emanda. Jakinarazpen horretan, xehetasunez konparatuko dira aldaketaren aurreko eta ondorengo prezioak, indarrean dagoen legediaren arabera. Bezeroak bertan behera utzi ahal izango du kontratua, inolako kosturik gabe.

Eguneratuz gero, prezio berria formula honen emaitza izango da gehienez ere, baina merkaturatzaileak prezio txikiagoa ere aplikatu ahal izango du:

Prezio berria = Energiaren kostua + Bidesariak * Tasak

Energiaren kostua = $[(PM + CD + FNEE) * (1+Mer) + PFA] * (1+TM/(1-TM))$. Non:

- PM (Molekularen Prezioa): "Settlement price"-ren batezbesteko aritmetikoa, OMIPek (www.omip.pt) argitaratua, hurrengo sei hilabete naturaletarako FGF M produktuenak, jakinarazpena egiten den hilabetearen ondorengoak. Jakinarazpena egin aurreko hilabete azken lanegunean argitaratutako balioak hartuko dira kontuan (ez jaiegunak OMIPen egutegiaren arabera). Batezbesteko horri merkatuaren likidezia baxuagatik arrisku-prima bat gehituko zaio, 0,008 €/kWh-ko balioarekin.
- CD: Parametro finko bat, %5eko balioarekin, sistemaren desoreken penalizazioengatik, molekularen prezioari aplikatua.
- FNEE: Jakinarazpena egin aurreko azken 6 hilabete naturaletako balio ertainak hartuko dira kontuan.
- Mer (Galerak): Parametro finko bat, %1,5eko balioarekin, gasaren birgasifikazio, garraio eta banaketako galerengatik. Horrez gain, %0,5eko arrisku-prima bat gehituko da, banatzaileen etorkizuneko likidazioengatik.
- PFA: Parametro finko gehigarri bat, 0,07 €/kWh balioarekin, eragiketa-kostuak, finantza-kostuak eta merkaturatze-marjina kontzeptuengatik.
- TM: Bide publikoaren okupazio-tasa, jakinarazpen unean indarrean dagoena, 2004ko martxoaren 5eko 2/2004 Errege Dekretu Legegilearen 24.1.c) artikuluan arautua, gaur egun %1,5ekoa.

Prezioen lehen berrikuspen seihilekoan, kontratua aktibatu eta sei hilabetera egin daitekeenean, berrikusitako prezioa ez da inola ere 0,025€/kWh baino gehiago igoko.

- **DESKONTUA TELEKOMUNIKAZIOETAN (R):** BEZEROAK 2,48 €-ko deskontua eskuratu dezake (horri zergak erantsi behar zaizkio: 3,00 € euro penintsulan, BEZa barne), eta R(e)k duen eta BEZEROAK aukeratzen duen telekomunikazio-

produktuari aplikatuko zaio.

Deskontu hori hilabete bakoitzeko azken egunean sortuko da, eta telekomunikazio-zerbitzuen hurrengo fakturan aplikatuko da. Kasu hauetan aplikatuko da, baldin eta: i) BEZEROAK ondoren ordaintzeko telekomunikazio-zerbitzuak R(r)ekin kontratatutak baditu eta aukeratutako telekomunikazio-produktua aktibatua baldin badago egun horretan; eta ii) BEZEROAK ordainduak baditu une horretan daukan energia-kontratuari eta telekomunikazio-kontratuari lotutako betebeharrak guztiak.

BEZEROAK MERKATURATZAILEarekin dituen energia-kontratutak adina deskontu aplikatu ahal izango ditu bere telekomunikazio-produktuan, eta hautatutako telekomunikazio-produktuaren hileko zenbateko osoa izango da deskontu horien hileko muga. Gehiegizko deskontua ez da metatuko, ez ordainduko.

Bi kontratuen baterako indarraldian aplikatuko da deskontua. BEZEROAK R(r)ekin edo MERKATURATZAILEAAREKIN kontratatutako zerbitzuari baja ematen badiu edozein unetan, baldintza hau indarrez geldituko da bi aldeentzat, eta, beraz, ez da aplikatuko aipaturiko deskontua. Energia-kontratuari baja emanez gero, kontratua aktibo egon den hilabeteko egun-kopuruaren arabera hainbatatuz aplikatuko da deskontua.

- **ARAUTUTAKO BESTE KONTZEPTU BATZUK:**

- **Kontagailuaren alokairua:** Neurketa-ekipamendua eta neurketako gainerako osagaiak alokairu-erregimenean instalatuta badaude, alokairu horrengatik fakturatu beharreko prezioak Ministerioak unean uneko arauen arabera finkatutakoak izango dira. BEZEROAK aukera dauka enpresa banatzaileak neurketa-ekipamenduen alokairuaren truke unean-unean kobratzen dituen prezioak ikusteko (<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2018-17607>). Prezio horiek marjina gehigarririk gabe helarazten zaizkio BEZEROARI.
- Banatzaileak zehazten ditu **araututako beste kontzeptu batzuk**, hala nola lotura-eskubideak, hedadura, IRC kanona, finka-kanona, ikuskapenak, eta abar, indarrean den legeriari jarraikiz, eta bezeroari inolako marjina gehigarririk gabe jasanaraziko zaizkio.

Kontsumitzaileari automatikoki jasanaraziko zaizkio sarbide-tarifetan, bidesarietan eta karguetan izaniko aldaketak indarrean jartzen diren egunetik aurrera, bai eta, oro har, administrazioak eragindako gainerako kontzeptu arautuen aldaketak, sorrerak edo ezabatzeak ere, eta ez dira hartuko kontratu honetako kontratubaldintzen aldaketatzat.

- **ZERGA APLIKAGARRIAK, LEGEZ ESKA DAITEZKEENAK.** Legez eska daitekeen edozein zerga aplikatuko zaie prezioei, zerga indarrean badago. Kontratu

hau sinatzen den unean, hauek dira zergak: batetik, hidrokarburoen gaineko zerga berezia (EGZB) eta, bestetik, balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) edo Kanarietako, Ceutako eta Melillako zeharkako zerga. Zergadun prezioa aplikagarriak diren zerga-aldaketetara egokituko da, haien iraupena edozein dela ere.

- Hidrokarburoen gaineko zerga bereziak hidrokarburoen kontsumoa zergapetzen du, eta Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen 46-55 artikuluetan arautzen da. Helbide honetan kontsultatu daiteke: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1992-28741>
- Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legean arautzen da BEZa. Helbide honetan kontsultatu daiteke: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1992-28740>
- Kanarietan IGIC delakoa aplikatuko da (Kanarietako Zeharkako Zerga Orokorra). IGICa ekainaren 7ko 20/1991 Legean dago araututa, eta helbide honetan kontsultatu daiteke: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1991-14463>.
- Ceuta eta Melillan IPSI izeneko aplikatuko da (produkzioaren, zerbitzuen eta inportazioaren gaineko zerga). IPSIa martxoaren 25eko 8/1991 Legeak arautzen du. Helbide honetan kontsultatu daiteke: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1991-7645>
- Banku-erakundearen itzulketa-gastuak, garaiz kanpoko kobrantzatik eratorritako gastuak, ez ordaintzetik eratorritako gastuak eta administrazio-kudeaketako antzeko beste gastu batzuk BEZEROARI jasanaraziko zaizkio, funtsik ez izateagatik edo BEZEROARI egotz dakizkiokeen beste arrazoi batzuegatik gertatzen direnean. Gehienez 15 (hamabost) euro gehi zergak izango dira, eta ordaindu gabeko fakturetatik ordaintzeke dagoen zenbatekoari metatu ahal izango zaizkio.